

Merkatu-zerbitzuen sektoreko salmentak % 5,5 igo dira Euskal AEn 2023ko bigarren hiruhilekoan


2023ko lehen sei hilekoko metatuan, salmentak % 8,0 igo dira

Eustaten datuen arabera, *Beste merkatu-zerbitzu batzuen* sektoreko salmentak % 5,5 igo dira Euskal AEn 2023ko bigarren hiruhilekoan, iazko hiruhileko beraren aldean, prezio konstanteetan eta egutegiaren eraginak kenduta. Sektore honetan, *Garraioaren, Ostalaritzaren, Informazioaren eta komunikazioen* eta *Enpresentzako zerbitzuen* sektoreek eskainitako zerbitzuak kontabilizatzen dira.

Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, prezio konstanteetan eta dagozkien urtaro-eraginak kendu ondoren, salmentak % 0,5 igo dira 2023ko bigarren hiruhilekoan.

Zerbitzuen indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa. (%)

Jaiegunen eraginetatik zuzendua. Prezio finkoak



Iturria: Eustat. Zerbitzuen koiuntura-indizea

Beste merkatu-zerbitzu batzuen sektorearen barruan, salmenta errealean urtetik urterako bilakaera positiboa (prezio konstanteetan) sektore guztietan gertatu da, *Administrazio-jarduera* eta *zerbitzu lagungarrietan* izan ezik, sektore horretan salmentak % 1,9 jaitsi baitira. *Garraioaren* eta *biltegiaritzearen* sektorean, % 13,2ko hazkundera izan da; *Informazioaren* eta *komunikazioen* sektorean, % 2,5ekoa; *Ostalaritzan*, % 1,3koa, eta, azkenik, *Jarduera profesional, zientifiko eta teknikoetan*, % 0,8koa.

2023ko bigarren hiruhilekoa lehen hiruhilekoarekin alderatuta, sektore hauek izan dute salmentetan emaitza positiboa: *Garraioa eta biltegiatzea* (% 2,2), *Ostalaritza* (% 1,2) eta *Informazioa eta komunikazioak* (% 0,5). Aitzitik, salmentak % 1,4 jaitsi dira *Administrazio-jarduera eta zerbitzu lagungarrietan*, eta % 1,1 *Jarduera profesional, zientifiko eta teknikoetan*; hori guztia prezio konstanteetan eta dagozkien urtaro-ondorioak kenduta.

Euskal AEko zerbitzuen koiuntura-indizea. Beste merkatu zerbitzu batzuk. Behin-behineko datuak. 2023/II

	Prezio finkoak		
	t / t-4	t / t-1	A(t) / A(t-4)
INDIZE OROKORRA	5,5	0,5	8,0
Garraioa eta biltegiatzea	13,2	2,2	17,7
Ostalaritza	1,3	1,2	3,1
Informazioa eta komunikazioak	2,5	0,5	3,4
Jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak	0,8	-1,1	1,1
Administrazio jarduerak eta zerbitzu lagungarriak	-1,9	-1,4	1,4
LURRALDE HISTORIKOAK			
Araba/Álava	8,9	0,1	10,7
Bizkaia	2,4	0,8	4,4
Gipuzkoa	10,0	0,2	14,0
ENPLEGUA	1,5	0,8	0,5

t / t-4 Urteen arteko aldakuntza. Egutegi eraginak zuzendutako datuak

t / t-1 Hiruhileko arteko aldakuntza. Datu desestazionalizatuak

A(t) / A(t-4) Urteen arteko aldakuntza urte honetan zehar. Egutegi eraginak zuzendutako datuak

Data 2023ko Irailaren 14a

Iturria: Eustat. Zerbitzuen koiuntura-indizea

Lurralde historikoei dagokienez, Gipuzkoan, urtetik urterako % 10,0ko igoera izan da salmenten indizean; Araban, % 8,9koa, eta, Bizkaian, % 2,4koa.

Euskal AEn zerbitzu horietan guztira enplegatutako langileen indizeak % 1,5eko aldaketa positiboa izan du, 2022ko bigarren hiruhilekoaren aldean. Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, igoera % 0,8koa izan da.

INFORMAZIO-OHARRA

Eustatek eskerrak eman nahi dizkie informazioa biltzen lagundu diguten establezimendu guztiei. Haiei esker, hiruhileko honetako indizea **% 94,3ko estaldurarekin** kalkulatu da.

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62